# GALDERAK

19. Neguko fruitu,
beroa jango nauzu.
Egunkari paperean bilduta,
hator hator ni jatera!



Gaztaina

20. Lore baten hazi,
askotan naiz gazi.
Krisk krask hortzekin ireki ostean,
azalik ez bota lurrera.



Pipak

21. Beltz edo berde
beti dira dezente.
Hala ere dozena batekin
urtea duzu agurtzen.



Mahatsa

22. Kanpai itxura
pekaz betea,
barrutik zuria
kanpotik berdea.
Zer naiz?



Txermena

# GALDERAK

1. Sendabelarrik ezagutzen al duzu?
Esan gutxienez bat. Gehiago badira,
hobe!

2. Fruta edo barazkien argazkiak jarri
eta lotu ditzatela dagozkien izenekin

3. Zerrenda bat eman fruitu eta
barazkiekin, eta bereiz dezatela zein
den fruitua eta zein barazkia.

4. Geruzak eta geruzak ditut,
kendu nahi badizkidazu,
negarrari ekingo diozu.



Tipula

5. Aza dut izena,
lorea abizena.
Gehiago jakiteko
baratzera joan beharko



Azalorea

6. Baserritar batek astearteko azokara 6
letxuga kaxa eraman zituen. Kaxa
bakoitzean 5 letxuga sartzen badira,
zenbat letxuga eraman zituen
guztira baserritarrak azokara?



30

7. Eguzkia hasieran,
lorea amaieran.
Zer da?



Eguzkilorea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

# GALDERAK

8. Kanta ezazue barazki edo frutekin loturiko abestiren bat.

Aldapeko sagarraren; sagarra
mantzana ikatza karbon;
altza porru da gure ohiua;
hator hator

9. Igarako errotan irina egiteko zer erabiltzen da? Ez zaitez artaburua izan, erraza da eta!!!



Artoa

10 Bi burmuin elkarri lotuta,
azal ximur batez babestuta.
Zer fruitu da?



Intxaurra

11. Baratzean nago.
Hankak lurrean
burua airean,
txoriak uxatzeko.
Zer naiz?



Txorimaloa

12. Mishaek prestatua,
semeak gorrotatua.
Zer barazki da?
Piperra



Piperra

13. Gorri gorria kanpotik, haziz betea.
Baratze nahiz basoan udaran,
urte osoan yogurtean?



Marrubia

# GALDERAK

14. Koloreak ematen dit izena,
bitaminaz naiz betea.
Karameluetan ezagutzen nauzu,
baita zuhaitzean ere.



Laranja

15. Berde-berdea, baratzean hazia,
marinelak ninduen famatu,
indarra bainion garatu.
Zer naiz?



Espinaka

16. Borobila eta berdea,
kanpotik ekarria.
Batzuetan antxoaz betea,
mostoaren osagarria.
Zer da?



Olibak

17. Fina eta luzea,
hilea du berdea.
Untxien gustuko,
gordinik nahiz egositako.



Azenarioa

18 Fruta zuri gorri edo berde,
zure esku utzi dezaket.
Hainbat zapore ditu nahasten
zuk dituzunak aukeratzen.
Zer da?



Mazedonia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO